



DONOSTIAK 325 ZUHAITZ ESPEZIE DESBERDIN DITU

- **Hiriko natur ondarea 146.000 zuhaitzetik gorakoa da**

"Donostia Botanika" Hiriko Zuhaitzen Plan Zuzentzailearen izena da. Hiriko Parke eta Lorategi Saileko zerbitzu teknikoek ia bukatua dute jada.

"Dokumentu guztiz osatua da, Donostian ezaugarri horiek dituen lehena" aditzera eman du Carlos García Hiri eta Mantentze Zerbitzuetako zinegotzi sozialistak. "Donostiak zuhaitz-ondare aberatsa du, 146.710 ale, hain zuzen. Hori, ehunekoetan, hiriko azaleraren %60,7a da. Gure hiria, agian, penintsula osoan zuhaizti gehien dituen hiria da, txosten teknikoek diotenez. Zuhaitz horietatik ia 80.000 hirigunean daude, eta gainerakoak, inguruko basoetan. Aberastasun hori 325 espezetan banatzen da. Horietako batzuek aparteko balioa dute, eta, oro har, multzo osoak kontserbazio-egoera bikaina du".

Espezien arabera, platanoa da ugariena Donostian. Ondoren, urkia, ezkia, tamariza, lizarra, e.a. datoz. Bakar batek ere ez du gainditzen guztizkoaren %7a, eta hori Donostiak duen aniztasunaz mintzo da.

Prentsa oharra

Nota de prensa



“Donostia Botanika” dokumentuaren helburua ez da soilik Donostia biodibertsitatearen eta aberastasun naturalaren ikono bihurtzea, baizik eta, baita ere, zuhaitzek, klima-aldaketara egokitzeko eta haren ondorioak arintzeko, duten zeregin garrantzitsua nabarmentzea, etorkizuneko belaunaldiei guk daukagun ondarea jasoko dutela bermatzearen.

“Donostia Botanika” hiriko zuhaitzen azterketa sakon batean oinarritzen da, indarrak, aukerak, gabeziak eta mehatxuak identifikatzeko egindako analisi batean. Azterketa horretatik abiatuta, 12 helburu nagusi ezarri dira, besteak beste, herritarren bizi-kalitatea eta osasuna hobetzea, airearen kalitatea hobetzea, klima-aldaketari aurre egiteko erresilientzia areagotzea eta zuhaitz-ondarea hobetzea. Helburu horiek lortzeko, 35 lan-estrategia eta 50 ekintza espezifiko daude, 2024tik 2034ra doazen hamar urteak hartzen dituen plan batean banatuta.

Juantxo Marrero Ekologia zinegotziak adierazi duenez, dokumentua sortzeko egindako lanaren arabera, "zuhaitzek hiriari egiten dioten onuraren balioa urtean ia 2,5 milioi eurokoa dela balioztatzen da, kontuan hartuta gaixotasunen eta heriotzen prebentzioan, berokuntzan eta aire girotuan, kutsaduraren murrizketan, airearen kalitatearen hobekuntzan eta uholdeen prebentzioan aurrezten dena. Naturan egindako inbertsioa da, oso mesedegarria, agerian jartzen dituen zuhaitzek hirietan sortzen dituzten onurak eta, aldi berean, Donostia nazio-mailako erreferente bihurtzen duena".

“Donostia Botanika” Planak honako hauek proposatzen ditu: inausketa, landaketa eta hiri-espazioen moldaketa modu berrietara egokitzea; zuhaitz apartekoak sustatzeko plan bat egitea, Donostiako zuhaitz-ondarearen balioa handitze aldera; eta zuhaitzien arriskua ebaluatzeko planak, bai eta mantentze bereizi eta jasangarrirako planak ere.

Hala, honako hauek planteatzen dira: herritarrak kontzientziatzea zuhaitzek osasunari eta ingurumenaren kalitateari ekartzen dizketen onurez; klima-aldaketaren ondorio gero eta nabariagoi aurre egiteko erresilientzia areagotzea; obra eta azpiegitura berriak diseinatu eta gauzatzean barne-hobekuntzak aplikatzea, zuhaitzen osasunari kalterik ez egiteko, eta lantaldeak hobetzea, espezieen garapen eta mantentze ona dakartzaten teknika berriak erabiliz (inausketa-sistema berriak, drainatze jasangarriak zuhaitz-txorkoetan, loratzeak urtaroen arabera diseinatzea, e.a.). Azken batean, hiria paisaiaren ikuspegitik hobetzea, korridore berdeak eta babesleku bioklimatikoak ere sortuz.

“Donostia Botanika”k honako eginkizun hauek hartzen ditu bere baitan: Zuhaitz Ondarea eta Zuhaitz Apartekoak Babesteko eta Sustatzeko Ordenantzak egitea, Europako lan estandar berrietan oinarritutako lan-protokoloak sortzea, Hiri-eremuetarako Naturan Oinarritutako Irtenbideak jasotzen dituzten Eskuliburuak definitzea eta Lanen Kalitate Estandarrak finkatzea.

Prensa oharra

Nota de prensa



Laburbilduz, "Donostia Botanika" Hiriko Zuhaitzen Plan Zuzentzailea konpromiso integrala da, helburu dituena herritarren bizi-kalitatea hobetzea, ingurumena babestea eta jasangarritasuna sustatzea, hiriko zuhaitzak zainduz eta sustatuz.

Amaituta dauden dokumentu guztiak, ondo bidez, apirilaren 15erako entregatuko dira.